

Enbat

LGV consultation du CADE

HEBDOMADAIRE
POLITIQUE
BASQUE
20 septembre 2012
n° 2245
1,30 €

Collectivité territoriale

Revirement socialiste

ISSN 0294-4596



917702941459006



Les coutures craquent

La Diada du 11 septembre 2012 dans la capitale catalane n'est pas prête de tomber dans l'oubli. Un million et demi de Catalans sont descendus dans les rues de Barcelone pour réclamer sinon l'indépendance tout au moins une autonomie complète, à commencer par l'autonomie fiscale, face au gouvernement central. Une participation sans précédent depuis le défilé historique de 1977 pour l'autonomie de la Generalitat.

La manifestation du 11 septembre fera date. On s'en souviendra comme du jour où une large majorité de la population catalane s'est engagée publiquement dans une démarche revendicative vers l'indépendance de la Catalogne. Aussi bien, la marée humaine qui a déferlé sur Barcelone, scandant des slogans indépendantistes, s'adressait-elle autant au gouvernement d'Arthur Mas qu'à celui de Mariano Rajoy. Pour nombre de citoyens catalans, l'heure n'est plus aux tergiversations ni aux accords au rabais avec Madrid.

Artur Mas, qui n'était pas présent à la manifestation, semble l'avoir compris. Si Mariano Rajoy n'accepte pas la mise en oeuvre d'un pacte qui donnerait à la région sa propre autorité fiscale, le président de la Generalitat se dit prêt à anticiper les élections locales et à entreprendre des démarches vers l'indépendance. Même si la tonalité de la déclaration tient du *"retenez-moi ou je fais un malheur"*, le discours est, somme toute, assez nouveau dans la bouche d'un dirigeant de CiU.

C'est que le feu couve dans la maison catalane et qu'Artur Mas sait pertinemment la responsabilité de son parti dans l'incendie qui peut éclater à tout moment. La dette de la Generalitat de Catalogne atteint le montant astronomique de 42 milliards d'euros. 21% du PIB catalan. Elle s'élevait à 8% en 1986. Dans l'intervalle, seuls 57% de la totalité des impôts et taxes collectés dans la Generalitat ont été dépensés en Catalogne, 43% ont été investis dans le reste de l'Espagne. C'est dire si les catalans ont fait preuve de soli-

darité vis-à-vis des autres régions espagnoles.

Solidarité ou plutôt négligence. Car en presque trois décennies de gouvernance, CiU n'a rien fait d'autre qu'apporter son soutien inconditionnel aux gouvernements madrilènes successifs du PSOE et du PP, sans réclamer quelque contrepartie que ce soit en matière d'autonomie fiscale. Et l'on sait ce que les gouvernements madrilènes ou régionaux corrompus ont fait de la manne catalane: ils ont couvert le pays d'ensembles immobiliers démesurés, d'aéroports aussi gigantesques qu'inutilisés, de parcs de loisirs ou d'équipements pseudo culturels ruineux.

Le résultat de la compromission de CiU est là: la Generalitat en est réduite à quémander 5 milliards d'euros à Rajoy pour payer les fonctionnaires et faire face aux dépenses sociales d'ici la fin de l'année. Chez de nombreux catalans, la colère s'ajoute à l'humiliation. Personne n'a digéré le camouflet infligé par le Conseil constitutionnel espagnol, il y a deux ans, lorsqu'il avait retoqué le projet de statut voté par le parlement catalan.

Forts du succès de la mobilisation du 11 septembre, les organisateurs – ANC (Union nationale catalane) et AMI (Association des municipalités pour l'indépendance) exigent de Mas qu'il fixe un calendrier pour mettre en oeuvre le processus d'indépendance, avec, en point d'orgue, un référendum en 2014. Comme en Ecosse.

Décidément, les coutures étatiques commencent à craquer dans la vieille Europe. Au grand dam des indémodables jacobins dont la vision réactionnaire d'une histoire immuable commence à se brouiller. A une échelle beaucoup plus modeste, le consensus atteint, bon gré mal gré, jeudi dernier autour de la proposition d'une collectivité territoriale à statut spécifique témoigne aussi de l'évolution des esprits des responsables politiques d'Iparralde.

Ezin sinetsi bilkura

Joan den ortzegunean, Baionako Elkarteen etxean iragan da frantses Senatuak, Frantzia guzian, deszentralizazioari buruz antolatua duen eztabaida. Departamendu bakoitzean bilkura bat, baina seinale bat bezala, Pirinio Atlantikoe-tan, gure gaurko departamenduan, bi bilera antolatuak izan ziren, bat Ipar Euskal Herrian, Baionan, bestea Biarnoan, Pauen. Parte hartzaileak, hautetsi eta Baterako kideak, hitz berekinatera ziren bilkuratik: *"ezin sinetsia, historikoa, harri-garria!"*

Aitzineko astean, Hautetsien kontseiluan, hautetsi sozialista batzuek Euskal lurralde elkargoak behar duen adostasuna, behar duen akordioa, hautsi zuten. Arrangura, duda, baina ere mobilizaziorako determinazioa, sortu zen Iparraldearen ezagupen ofizialaren alde borrokatzen diren kideen buruetan. *"Ezin sinetsia, harri-garria"*: han ziren laurogei hautetsietatik parte zabalena Marie-Christine Aragon, Christophe Martin eta Colette Capdevielle jarrerara aldaketa txalotu zuten. Atseginez hartu zuten aldaketa horri esker Ipar Euskal Herriko lurralde elkargoak euskal hautetsien artean lortzen duen adostasun zabala. Departamenduko sei parlamentarietatik bost ados lirarteke. Horieta Euskal Herriko hiru diputatuak, Jean Lassalle, Colette Capdevielle eta Sylviane Alaux.

Nork erranen zuen holako gertakari bat ikusten ahalko zela?

Beste txalo batzuk entzun ziren Elkarteen etxean, Lurralde elkargoaren alde mintzatu ziren gehieni luzatuak izan ziren. Gutxiengoan izanik ere, postura kontrakoak entzun ziren. Jarrerara jakobinoak ere. Angeluko hautetsi batek bere lekukotasuna abiatu zuen erranez *"bera frantses normala zela"*. Nola ulertu behar ziren haren hitzak? Nehork ez dio erantzun. Ez zen erantzun baten beharrik. Erantzun hoberena bere alderdi kideek eman zioten jarreraz aldatuz. Ez ginuen gehiago entzun. Nehork ez zuen txalotu. Ez baitzen *"frantses normalen"* eta *"beste ez normalen"* arteko eztabaida bat. Ez eta ere frantses eta euskaldunen artekoa. Edo berdin bai.

Pentsatzen ahal da bilkuran ziren gehienak beren burua kokatzen dutela *"normala"*, *"desberdina"*, *"frantsesa"*, *"euskalduna"*, *"frantsesa baino euskaldunago"*, *"euskaldun baino frantsesago"* edo beste nik dakita zer nolako kategorian... Baina aniztasun horrek ere Iparraldeko Lurralde elkargo galderari indar gehiago ekartzen dio. Eskariak gaintzen ditu kategoriak, alderdiak, desberdintasunak. Ez dute denek oraindik ulertua. Hautetsi berak proposatu zuen pentsaketa hedatzea Landesetako parte bati. *"Frantses normal"* gehiago badelako? Nehork ez zion erantzun. Nehork ez zuen txalotu. Eta laster Marie-Christine Aragonek bere gutuna irakurri zuen. Angeluar hautetsiaren erranak ahantzi ziren eta *"ezin sinetsia"* gertatu zen.



Auzolana zerrenda bakarra

Panpi Sainte-Marie

ELB eta Biarnoko Confédération paysanne zerrenda amankomunean aurkeztuko dira 2013ko urtarrileko departamenduko laborantza ganbarako hauteskundeetan.

Hala hor errana! Bat baino gehiago harritu daitaie berria jakitean. Enbata astekariko irakurle fidela eta Euskal Herriko bizi politiko, sozial, kulturala doi bat segitzen duen orok pentsatu duke "zer gertatzen da?", beste batzuk ere berdin "orain gibelka?". Entseatuko naiz, nere heinean, astekari huntako irakurle oro lasaitzera. Lasaituko ez direnak izanen dira agian FDSEAko batzu.

Lehenik, historika doi bat egin dezagun. Duela 30 urte sortu zen ELB eta, orain arte, zerrenda propioa aurkeztu du beti Iparralde huntan, Biarnoko Confédération paysanne-k berdin jokatzeko zuelarik bere lurraldean, halere proiektu adostu amankomunarekin. Departamenduko laborantza ganbarak Euskal Herriko laborantzaren berezitasunak ezagut eta defendia ditzan borrokatu da ELB hogei bat urtez. Han, Pauen ELBko bi ordezkari zer egin zezaketen parean ziren kasik hamar aldiz gehiagoren kontra? Bai kontra! Gure eskakizun guzien kontra tematu dira itsuki. Itsuki? Bai gure ustez abilkizun jokatu balute, gurekin ulerkorrago, eztiago izan balira, berdin ixoriora besterik izanen zen.

Prozesu luzea

Pauen FDSEA jaun eta jabe izate horrek, gurekilako izan duten hertsidura, errabia, nunbeit bere kaltetan eta gure alde bihurtu da azkenean. Hogeitaz horietan, FDSEAk, uste gabea, hemen laborarien artean egitura instituzional baten sortzearen beharra finkatu du. Prozesu luze bat izan da bainan beharrezkoa. Frui-tuak ondu behar zuen. Erran behar da ELBren inguruan eta hurbil, 30 urte hauetan egitura alternatibo ainitz sortu dela (GFAM, AFOG, Idoki, Arrapitz...). Hemen zerbait falta genuelarik, frangotan, guhaurek jakin izan dugu beharrezkoa zen tresna sortzen. Euskal Herriaren dinamismo hori adibide horietan frogatzen da. Beraz, ez da harriztekoa 2005ean EHLG sortu badugu. 2001ean gehiengo sindikala bilakatu ginen Iparraldean bainan ez zen nahikoa izan estatu frantsesarentzat. Beti bezala, dena estakuru lehenik eta azkenean ezin bestean «ersatz» bat emanez, egiazko ahalmenik gabeko kisku huts bat.

Eta orain bide horrek lagundu gaitu ere 2012an kon-testu berri batean kokatzera. Euskal Herriko Lurralde kolektibitatearen ideia, laborantza eta CDOA (departamenduko laborantza norabideen batzordea) propioekin, zabalki onartua da jendartearen, Hautetsien kontseilu eta Garapen kontseiluraino. Ez gira prozesuaren bururat helduak, bainan gauzak zinez bidean dira. Euskal Herriko laborantzaren berezitasunen aldeko konpetentzien eta antolaketaren eskuratzea leheneko helburuetan da ELBrentzat. Halere, gaurko laborantzaren egoera ikusita, beste modelo baten behar gorriaren erakustea da gure lehentasunetan ere. Biarnoko Confédération paysanne-kin batzea aldarrikapen hori agerian emateko manera bat da. ELBk aspaldian bi borroka fronte edo adar baditu. Lehena,



instituzioarena, aski aintzinatua dena gure ustez, orain hauteskunde hauetan batzuentzat hain bat harrigarria iduri lukeen erabakia hartzerat eraman gaitu. Gure artean aski eztabaidaturik, eskualdeko bilkuretan baita azkenik gure Biltzar nagusian trenkaturik.

Ainitz eta uros

Ezin geldituzko bide ekonomiko okerraren ondorio latzak pairatzen ari gira! "Ezin gira izan ainitz eta uros!" zion departamendu huntako laborantza ganbarako FDSEAko lehendakari ohi batek. Ohar horrek ezinago argiki laburbiltzen du Paueko laborantza ganbarak eta hunen eramaile den FDSEAk gaur egun oraino duten logika eta doktrina, laborantzako hautu eta norabideak finkatzerakoan. Gaurko egoera larriaren arduradun nagusia da FDSEA. FNSEA da ere Estatu mailan sindikatu nagusi eta gaur pairatzen ditugun hautu politikoen sustatzailea.

Begira: 30 urtez behi ekoizleen %80 desagertu da departamenduan, etxaldean haunditzea eta ekoizle tipien etsipena beti sustatu duelarik beren ustezko «gutiago, haundiago eta urosago» haren lortzeko. Ardi eta behi esne ekoizleak ikusi ditugu ere esne ixurtzen ari beraien ezinegon eta egoeraren larritasuna salatzen. Sindikatu baten «arduradun» autodefinitzen diren beste laborari batzu aldiz industrialarekin eskuz esku ikusi ditugu: hor dira bi argazki esanguratsuak!

Paueko laborantza ganbara eta FDSEA ez dira Biarnoko eta Euskal Herriko laborari guzien zerbitzutan ari. Goraipatzen duten konzentrazio eta industrializazioak, ondorio geroz eta latzagoak ekartzen dituzte. Laborariet dituzte lehenik jasaiten, gure lurraldeak ere hunkiak dira eta kontsumitzaileek ez dute bat egiten modelo horiekin. Gure ofizio ederrak beti eta gazte guttiago erakartzen du, alta etorkizuneko ia zaiten ahal delarik.

Esperantza berriz sustatu behar dugu laborari biarnes eta euskaldunen artean, egoera ez baita aldaezina. Laborantza iraunkorrek balio erantsia sortzeko balio izan behar du, enpleguaren bultzatzeko eta ingurumena zaintzeko. Hori da bidea. Laborantza herrikoia ez da konzeptu teorikoa. Laboraria jokoaren erdian ezartzen du, kontsumitzailearekin harremanetan eta Iparralde barnealdean ikusten den bezala lurralde osoa biziartzeko gaitasunarekin.

Gure indarra elkartasuna da! Egoera berdina jasaiten dugu biarnes eta euskal laborariet. Hain da egoera txartua nun elgar lagundu, elgar indartu, behar baitugu, FDSEAr buru egiteko.

Gure geroa eskutan hartzeko, segur gira hautu egoiena egin dugula!



●●● que la couronne britannique bascule dans la provocation en envoyant le prince Harry faire de la figuration surprotégée en Afghanistan. Résultat: ce sont les boys américains chargés d'assurer la sécurité du petit qui se font descendre. On savait déjà le prince dénu(d)é de tout scrupule.

●●● et réjouit du dernier livre du député René Dozières, grand pourfendeur du gaspillage des deniers publics, montrant l'incroyable dérive dépensière des communes et des intercommunalités qui ont recruté 239.000 salariés supplémentaires entre 1998 et 2008, sans devoir faire face à aucune nouvelle compétence. L'incompétence n'a pas de prix.

●●● des excuses adressées aux victimes d'ETA par Arnaldo Otegi dans le livre qu'il vient d'écrire au fond de sa prison, alors qu'on n'a jamais entendu les néo-franquistes du PP demander pardon pour les 200.000 victimes du Franquisme. Oui, mais eux ne sont pas en prison.

●●● et réjouit que les Arbonar soient appelés aux urnes pour donner leur avis sur le projet de bâtiment multiservices concocté par le maire et jugé surdimensionné par son opposition. Y a bon Arbona!

●●● pas tant que ça, des propos outranciers de l'archevêque de Lyon, Mgr. Barbarin, qui brandit la menace d'une éventuelle légalisation de l'inceste si la loi autorisant le mariage des homosexuels est votée. Ce dont on parle le mieux, c'est ce que l'on connaît.



Assises départementales

La majorité en faveur de la Collectivité territoriale se renforce

Coup de théâtre jeudi 14 septembre après-midi, lors des Assises départementales des Etats généraux de la démocratie territoriale organisées par les trois sénateurs des Pyrénées-Atlantiques à Bayonne: deux des élus socialistes bayonnais qui avaient tenté de torpiller le vote en faveur de la collectivité territoriale pour Iparralde, huit jours auparavant, à l'AG du Conseil des élus, faisaient amende honorable et déclaraient soutenir la demande.

Avec les Assises départementales des Etats généraux des territoires de jeudi dernier 13 septembre à Bayonne, nous ne sommes déjà plus dans l'élaboration du consensus local entamée depuis presque un an par le Conseil des élus-Conseil de développement du Pays Basque. Ce premier acte du débat général voulu par le Sénat a pourtant été fortement dominé par le vote fondamental du 6 septembre, qu'*Enbata* a rapporté la semaine passée, en faveur d'une collectivité territoriale. Il a même été l'occasion d'un retournement spectaculaire et décisif de trois éminents élus socialistes, dont la députée Colette Capdevielle*, qui avaient cosigné un amendement assassin de dernière minute, mettant à bas le long travail de réflexion du Conseil des élus. S'ajoutait à cette prise de position publique au cours de ces assises, celle du député Jean Lassalle. On peut donc déjà considérer la décision du Conseil des élus, en faveur d'une collectivité territoriale basque, largement majoritaire avec le soutien affiché de nos trois députés du Pays Basque et de deux sénateurs sur trois des Pyrénées-Atlantiques, Frédérique Espagnac et Jean-Jacques Lasserre.

A la hauteur de l'histoire

Au-delà de ce fait politique majeur, ces assises départementales organisées par les sénateurs des Pyrénées-Atlantiques se sont articulées en deux séquences, présentées comme des tables rondes à thème, animées par l'universitaire Jean-Michel Uhaldeborde. A dire vrai, la plupart des intervenants sensés techniquement développer ces débats

ont avoué y avoir été invités quelques instants auparavant et, de ce fait, être pris de cours. Ainsi, statut de l'élu, relation Etat/collectivité territoriale, complémentarité ruralité/centre urbain, fiscalité, intercommunalité -tout cela, pouvant être traité aussi bien en Auvergne qu'en Charente- a été complètement avalé par la spécificité basque. Les trois sénateurs, Labazée, Lasserre et Espagnac, ont ouvert et clos la séance qui n'a réuni qu'une soixantaine d'élus, quelques simples citoyens et de nombreux journalistes. Jean-Jacques Lasserre y a clairement défendu le texte voté par le Conseil des élus dont il est le président, de même Frédérique Espagnac qui a hissé l'événement à la hauteur de l'histoire de France et enfin Georges Labazée, silencieux sur l'aspiration basque et qui, président du Conseil général, devait le lendemain présider une réunion identique à Pau pour les élus béarnais.

Bousculer les habitudes

C'est donc Marie-Christine Aragon, qui en lisant la déclaration, reproduite ci-après, annonçait son ralliement et celui de Colette Capdevielle, qui a été l'élément majeur de cette réunion. Ce revirement, signe d'une honnêteté politique après une erreur tactique reconnue, fut applaudi. Sylviane Alaux, députée, tint des propos forts: «*Si l'on ne tenait pas compte des travaux du Conseil des élus, je me sentirais un peu humiliée. Il faut mettre en œuvre ces réponses. Notre territoire a atteint sa maturité*». Frédérique Espagnac, sénatrice: «*Nous sommes ici pour une collectivité territoriale en Pays Basque*». Martine Bisauta, débitrice irremplaçable au

“Le revirement de Marie-Christine Aragon, signe d'honnêteté politique après une erreur tactique reconnue, fut applaudi.”

cœur de ces thèmes, Jean-René Etchegaray, dénonçant la «*perfidie*» de certains socialistes, Alain Iriart demandant de bousculer les habitudes et d'être novateur, Jean-Michel Galant, Christine Bessonart, Sauveur Bacho sollicitant une consultation populaire, Alice Leiciagueçahar et Jakes Abeberry, rappelant les étapes des trois actes de la décentralisation et les manquements de l'Etat, allèrent tous, avec des arguments complémentaires, dans le même sens. Guy Lafite, Jean Espilondo, Guy Mondorge se placèrent à des nuances près dans le camp d'en face, pour le statu quo. On attend maintenant le rendez-vous promis par la ministre de la Décentralisation, Marylise Lebranchu, avec la délégation du Conseil des élus.

*Avec Colette Capdevielle, ont rejoint le texte du Conseil des élus, Marie-Christine Aragon et Christophe Martin, conseillers généraux PS.

Intervention de la Conseillère générale en son nom propre et celui de la députée départementales des Etats généraux de

“Le dépôt d'un amendement sur une position minimale visait à constituer un consensus, en premier lieu parmi les élus PS et sympathisants, puis de rallier sur cette position commune l'ensemble des élus du Pays Basque. Nous visions par là, la poursuite de la démarche engagée par le Conseil des élus et le Conseil de développement du Pays Basque sur la gouvernance Pays Basque et l'adhésion la plus large possible, répondant ainsi à la nécessité d'une réponse, sinon unanime, du moins très majoritaire, demandée par la ministre Marylise Lebranchu. Force est de constater que notre démarche n'a réussi à rallier, dans notre propre parti, ni les opposants à la collectivité territoriale, ni ses partisans les plus engagés, ni les plus modérés. Ne parlons pas du deuxième objectif qui visait à rassembler au-delà de la gauche, car nous savons que nombre d'élus ne sont pas favorables à la collectivité mais préfèrent choisir l'absence.”

“Gurea, zibilizazio borroka da!”

Ekonomiak pertsonaren zerbitzura egon behar duela eskatzen dugu, eta beraz, politikaren azpian, ez alderantziz, orain gertatzen den moduan

Une Grève Générale se prépare longtemps à l'avance. Voici des extraits de textes ou articles utilisés par le Syndicat ELA afin de préparer la Grève Générale de ce 26 septembre. La version intégrale des articles "Politique du "Shock" au service d'une nouvelle phase de l'accumulation du capital", "La dissimulation de l'énorme crise sociale et démocratique", "Les mesures du Gouvernement Central du 13 juillet et l'Appel à la Grève Générale" et enfin, "L'utilité et l'urgence de la mobilisation" est disponible à l'adresse : www.mrafundazioa.org

GIZARTE ETA DEMOKRAZIA KRISI ERRALDOIAREN EZKUTAKETA

Eztabaida publikotik egungo drama soziala eta datorrena desagerrarazi 215.000tik gora langabe honez gero Euskal Herrian, laguntzarik jasotzen ez dituztenak geroz eta gehiago.

BPGan (edo Barne Produkto Gardenan, PIBan) soldaten parte hartzea geroz eta txikiagoa.

Behin behineko kontratuen ehuneak berbera izaten jarraitzen du erreformaz erreforma.

Beldurra, enplegua galtzeko ikara, gizar-te bazterketan erortzeko arriskua, eta horrek dakarren sumisia, esplotazioa...

Jende guztiak dakiena ezkutatu

Politika hauek ez dutela ezer konpontzen, krisia okertzea dakartela baizik..

Ez lan- zein pentsio-erreformek, ez murrizketek, ez finantza sistemaren bost erreformek ez dute ez enplegurik sortzen ez maileguak zirkulazioan jartzen.

Gizarte babesa eta pobrezia kriminalizatu. Iruzurti gisa irudikatu eta pobreak errudun egin.

Araza ez litzateke sistema, alper eta baldar eta gaizkileak baizik.

Jasaten ari garen zazpi demokrazia ustelkeria azalpen

Gardentasun falta: gobernuen prentsaurrekoak gezurra dira, buletinak irakurri arreta ahndiz irakurri behar dira gero.

Gogoan izan Espainiako gobernuak Amaiurri ematen dion erantzuna: zor subiranoa daukatenean zerrenda informazio erreserbatua da.

Dekretukada vs. parlamentarismoa: shock politikak ez dira ez eztabaidatzen, ez legebiltzarrean erabakitzen. Gobernuak lege dekretuak publikatu, eta ondoren onartu egiten dira (larrialdi egoera berezietarako sortutako figura legala). Horri gehitu behar zaio neurriei oinarritzko izaera emanda, guztiak betetzera behartzen dituela.

Azpikeria eta tempus politikoaren erabilera iruzurtia. Opor eta jai aldien erabilera interesatua, baita hauteskunde datena ere.

Aktore politiko zein ekonomikoen kontrako **ekinbide judiziala abiatzeko eta ardurak eskatzeko zailtasun nabariak.**

Komunikabide pribatu zein publikoen kontrol osoa, alternatibek iritzi publikatuan isla izatea galarazten duena.

Alderdi politiko zein sindikatu sistemen bahiketa finantzazio bidez. Hortxe dago Greco txotena alderdi politikoen finantzen inguruan ari hitz egiten duena, eta sindikatu sistemen finantziario iturri ugarietan egiten ari diren murrizketak.

Botere guneen kontzentrazio ikaragarria. Ez soilik finantza eta banka erakundeen kontzentrazioa (kontaezinak dira desagertzen ari direnak), baita legebiltzarkideen murrizketa, komunikabide publikoena, zinegotziena, eta liberatu sindikalena, erabakitze esparruen murrizte nabaria, kontrola eta pentsamendu bakarra errazteko "politika bakarra" aurrera eramanez ahal izateko.

MOBILIZAZIOAREN ERABILGARRITASUNA ETA PREMIA

Soilik mobilizazio sozialak lortuko ditu behar ditugun aldaketak.

Bosgarren greba orokorra izango da i26koa, eta jendeak galde dezake zer lortuko dugun grebarekin. Galderak badu bere zentzua: murrizketak egingo dira eta bide luzea gelditzen zaigu.

Baina langile mugimenduak politika publikoetan aldaketak lortu ditu, mobilizazio bidez lortu duenean klase politikoa langileon eskaerak bere egitea. Gaur egun, klase politikoa botere ekonomikoak dioena baizik ez du entzuten.

Dena den, garrantzia eman behar diegu Europako zenbait herrialdetan gertatzen ari denari.

Frantziako hauteskundeetan, lehen itzulian, %40ak ia indar "ez ohikoei" ematen die bozka.

Greziar ezkerreko mugimenduak ia hauteskundeak irabazi ditu.

Islandian krisiaren eragin dutenak prozesatu dira eta konstituzio berria idazten ari dira.

Shock politikak ere estatu "hutsuneak" sortuko ditu, zilegitasun falta babesten dituzten alderdiengan... Gurea zibilizazio borroka da: ekonomiak pertsonaren zerbitzura egon behar duela eskatzen dugu, eta beraz, politikaren azpian, ez alderantziz, orain gertatzen den moduan.

▼
"Le mouvement des travailleurs a obtenu des changements de politique grâce aux mobilisations qui ont amené la classe politique à mettre en pratique les revendications des travailleurs !"

Agian termiten irudiak balio digu... Itxuraz altzari bat zurruna da, noizbait txiki bat nahiko izan arte desagerrarazteko. Termitek modu isil, ikusezin eta atzemanezin batean desgastatzen joan dira denbora luzean zehar. Gaur indar harremanak ez du ematen, baina eman-gu du noizbait...

Ez da kontu txikia, garai txarretan nortasun kolektiboa indartzea. Gu bat izendatu hainbeste basakerien aurrean eta kolektiboki esan ez gaudela ados. Gaur agian ezin ditugu gauzak aldatu, baina behintzat oihu egiten dugu gu aldatu nahi ez dugula. Benedetik zioen moduan: "proiektua da beraien proiektua izorratzea, gu geu izaten jarraitzea..."

Lau greba orokor handi egin ditugu.

Horretarako gure esparrutan itxuraz hegemonikoak diren grebaren kontrako iritziak gainditu ditugu. Iritzia sortzeko gaitasuna izan dugu enpresetan, kalean, lagunartean... bestela ez dago azaltzerik aurreko greben arrakasta. Eta mobilizazio maila handiak lortu ditugu.

I-26 egun handi bat, paro handi bat eta mobilizazio egun erraldoi bat bihurtu behar dugu.

Murrizketa hauei eta datozenei, krisia okertzen dituzten politikei EZ esateko.

Esateko krisiari aurre egiteko beste moduak badaudela, lehenatasuna zabal-tzen ari diren gizarte larrialdi egoerei erantzutea dela.

Egoera honen kostuak benetazko arduradunei pasatzeko.

Lan eta gizarte alternatibak planteatzeko.

Gizarte eta sindikatu gune alternatiboa, ez menpekoa, indartzen joateko.

Borroka erreferentzia indartzeko.

Borroka legatua

Grebak langile borrokaren tradizio onenarekin lotzen gaitu, eta gaur borrokan dabilzan guztiekin batzen gaitu.

Egun batez, arnas ematen diegu grebe-kin, EREekin, itxierekin, gatazkekin, negoziatioekin, konkurtsoekin... hilabeteak borrokan dabilen jende askori.

Grebarekin legatu bat eta borroka eredu bat uzten dugu hurrengo langile belaunaldiei. Borrokaren pedagogia egin behar dugu, urteak iraungo dituen.

IBIL GAITEZEN, OIHU EGIN DEZAGUN... BIZITZEA EGOKITU ZAIGUN GARAI HONEN

HISTORIA IDAZTEN DENEAN JAKIN DADIN EZ GINELA ADOS EGON (Raúl González Tuñón)

Irailak Euskal Herrian

MURRIZKETARIK EZ

22

Kalera!

septiembre

Donostia
17:30
Bulebarra

Bilbo
17:30
Sagrado Corazón

Gasteiz
19:00
Andra Mari Zuriaren plaza

Manifestazioak

Irailaren 26ko Greba Orokorra babesten duten sindikatu eta gizarte eragileen manifestaldiak

Diada eta prentsa

Samatsa

Joan den irailaren 11a izan da dudarik gabe egun historikoa, ez bakarrik Bartzelona osoa jendez mukurriz betea baitzen Kataluniako independentzia aldarrikatzeko, baina bai prosesu berri baten hastapena izan baita dudarik gabe Katalunian manifestaldi handiena izan dena, jende guzieren arabera.

Hainbeste handia izan baita, frantses prentsa ere behartua izan da bere egunkarietan manifestaldia aipatzea, ez bixtan dena lehen tituluetan bainan azpimarratu behar da artikulu sakon batzu agertu direla frantses egunkari nagusietan eta telebisten erreportaietan.

Euskaldun gisa, ohidura dugu zikindua izaitzea Franziako kazetari zonbaitzuk edo gehienek gure herrian agertzen diren problematikak presentatzeko denboran idazten dituzten predikuetan; iduri luke infernua eta salbaiakeriaren lexikoa errotik ikasten eta baliatzen dutela Euskal Herriarekin lotuak diren aldarrikapenak eta ekintzak definitzeko edo deskribatzeko.

Diadaren kasuan, sorpresa handi bat izan da ikustea erabiliak ziren hitzak goxoak zirela, katalandar krema suabe bat bezala funtsean. Horrez gain, azpimarratua izan da ere Pep Guardiola Bartzelonako zangobaloi entrenatzaile ohiak bere sustengua ere ekarri zuela manifestaldiari eta independentziaren aldeko oihuer.

Nazionalistak, integristak eta erradikalak diren euskaldunekin konparatuz, frantses prentsak ez zuen dudarik agertarazteko katalandar moderatu eta goxo horiek beren arrazoinak zituztela hola-ko aldarrikapena egiteko. Sorpresa handiena Le Monde egunkarian atzematen zen, artikulu batek Diadari buruz espainol komunikazio medietan agertu ziren erreportaiak eta artikuluak analisatzeko denboran, azpimarratzen baitzuen zentzura eta informazio zeharrik izan zirela...

Pentsa, ze sorpresa!

Euskal Autonomi Erkidegoan heldu diren hauteskundeetan izanen diren emaitzak aztertzeke denboran, kazetari horiek Bartzelonan erakutsi dituzten argitasuna eta objektibitatea ez dituzte araz galduko...

ADOLFO MUÑOZ "TXIKI"

ELAko Idazkari Nagusia



Defentsa antolatua

Le 21 octobre se dérouleront les élections autonomiques au Pays Basque Sud.

A l'occasion de la campagne électorale le syndicat ELA a fait parvenir des propositions concrètes aux candidats à la Présidence.

Cette proposition, demande un vrai changement de politique, afin que la Politique "offre une protection aux citoyen(ne)s qui souffrent de l'austérité". La proposition a été envoyée à tous les partis politiques en même temps qu'une demande de rencontre de la part d'ELA.

En effet, "en démocratie, a souligné Adolfo Muñoz "Txiki", Secrétaire Général du syndicat ELA, les campagnes électorales doivent être l'occasion de préciser le programme de chaque force politique, le moment de débattre, d'échanger entre partis et le temps des prises d'engagement précis sur des thèmes clairs, connus et identifiés des électeurs."

Laster izango dira EAeko Legebiltzarreko hauteskundeak, langile-klasearentzako eta herritar gehienentzako une latzean izan ere. Esan dezakegu emergentzia sozialeko egoeran gaudela. Pobrezia orokortzeko politikak indar handiz ari dira ezartzen, eskubide laboral eta sozialak behin eta berriz murrizten dizkigutelarik. Iazko udan onartu zen Konstituzioaren erreforma edota berau garatu zuen Aurrekontuen Egonkortasunerako Legea bide beretik doaz.

Erakunde guztiak ari dira aurrekontuak murrizteko politikak aplikatzen, baita Eusko Jaurlaritzan ere; berau, murrizketen aurka dagoelako itxurak egin arren, gas-tua funtsezko gaietan murrizten ari da -osasungintza, hezkuntza edo etxebizitza-, eta okertu egiten ditu gizarte-prestazioetan nahiz administrazioan lanean ari den beharginen lan-baldintzak.

Botere ekonomiko, finantziero eta mediatikoari aurre egin

ELAren aburuz ezinbestekoa da ekinbide politikoan gai sozialari lehentasuna ematea, eta horrek erabateko aldaketa eskatzen du egiten diren politiketan. Oraingo bideari jarraituz gero, hondamendira goaz. Badakigu aldaketa hori izatekotan aurre egin behar zaiola botere ekonomiko, finantziero eta mediatikoari, eta honek, hain zuzen, aldaketa eskatzen du hauteskunde ondoren aginduko dutenen aldetik.

Demokrazian, hauteskunde-kanpainak indar politiko bakoitzaren programa zehazteko izan beharko litzateke, eztabaidarako, elkarrekiko interpelaziorako eta hautesleek identifika ditzaketen gai jakinei buruzko konpromisoak hartzeko. Zoritxarrez, hau ez da horrela izaten.

Langile-klaseak lan-eskubide eta -baldintzei dagokienez babes handiagoa izan du klase politikoa, nola edo hala, botere ekonomikoaren diru-goseari eta esplotazioari mugak jartzera ausartu denean. Defentsa edo oreka emateko funtzio honek interes orokorra ipartzat hartzen du, eta funtsezko oinarri etiko baten baitan dago: ekonomia pertsonen zerbitzura egon behar dela, eta ez alderantziz. Zoritxarrez, gaurko egoera ez da hori.

Arlo sozialean neurri konkretuen hartzea hitz eman

Eutsi egiten diogu oinarri bati: hauteskunde-kanpainak asmo demokratiko eta soziala izan behar dute. Hori lortzeko indar egiten jarraitzeko prest gaude, finantza eta enpresen lobbyek asmo horren kontrara jokatzeko duten legitimitate bera baitugu, edota are legitimitate handiagoa.

ELAk dei egiten die alderdi politikoei agintera iristekotan izango duten ekinbiderako konpromiso batzuk har ditzaten. Hots, hitz eman dezatela neurri konkretuak ezarriko dituztela, jendearen bizikaltatea, enplegua eta gizarte-justizia hobetze aldera. Ez ditugu arlo guztiak aipatuko, baina lan-ildo argi bat marraztuko dugu.

Beste batzutan eratu berri ziren gobernu autonomiko eta foralei egin izan dizkiegu eskarriak, "gobernu ekinbiderako proposamenak" plazaratuz. Etorkizunean ere egingo dugu. Baina beste urrats bat eman eta hauteskundeetako eztabaida baldintzatu nahiko genuke. Espero dugu asmo honek etekina ematea.



www.ela-sindikatu.org/eu/aktualitatea/albisteak/elak-lehendakarigaiei-proposamen-konkretuak-egin-dizkie

Les réseaux sociaux

Une opportunité qui prend du temps

Largement utilisés par les individus, les réseaux sociaux offrent aussi l'opportunité pour l'association de mieux faire connaître ses activités mais aussi de créer un espace interactif avec des personnes intéressées par l'objet de votre association. A condition d'y passer du temps.

Facebook, Google+, twitter les réseaux sociaux rassemblent comme leur nom l'indique une communauté qui partage des centres d'intérêts communs. C'est donc un moyen d'échanger avec vos adhérents bien sûr mais aussi plus largement avec des sympathisants ou même des curieux attirés par votre projet associatif.

Virale

